

4. IKASGAIA

GANBIO-LETRAREN OINARRI KAUSALAK ETA SALBUESPENAK

Laburpena

1. GANBIO-LETRA ETA OINARRIZKO NEGOZIOA
 - 1.1. Obligazio ganbiarioak
 - 1.2. Kausazko harremanaren eragina obligazio ganbiarioagan
2. HORNIDURA ETA BALUTA
3. GANBIO-LETRA ENTREGATZEAREN HELBURU KAUSALAK
4. MESEDEKO LETRA
5. SALBUESPENAK

1. GANBIO-LETRA ETA OINARRIZKO NEGOZIOA

Deklarazio ganbiarioa ‘bigarren mailako’ negozio edo egintza da. Orain arte ganbio-letraren eremuan sortzen diren harremanak aztertu ditugu baina ez diegu begiratu ganbio-letraren azpian dauden harremanei. Norbait ganbiarioki obligatu izanaren arrazoa (salerosketa, deskontu-kontratua, e.a.) ez dugu letran bertan aurkituko, letratik kanpo dago. Horregatik diogu ganbio-letra ‘bigarren mailako negozioa’ dela. Deklarazio ganbiario bakoitzaren azpian, oinarrian, beste negozio bat dago eta hura burutzeko egiten da ganbio-letra. Oinarrizko negozio hori da deklarazio ganbiarioaren ‘kausa’. Horretara dator harreman ‘kausalak’, oinarrizkoak edo extraganbiarioak ere aztertzea: igortzaile eta igorpenduaren artekoa (*hornidurazko harremana*) eta igortzaile eta hartzaile eta endosugileen artekoak (*balutazko harremanak*). Beraz, bi eremu bereizi behar dira derrigorrez: harreman ganbiarioak eta harreman extraganbiarioak, hornidurazkoa eta balutazkoa.

Bereizketa honek badu bere islada legetan. Esate baterako, desberdinak dira harreman hauei dagozkien preskripzio-epeak. Harreman ganbiarioan, akzio zuzenak hiru urte eta atzerabidekoak urte bete edo sei hilabeteko epea dute (LCCh 88. art.) Harreman extraganbiarioari, ordea, beste preskripzio-epe bat

dagokio (KZ 1964. Artikuluko 15 urtetako preskripzio epe orokorra). Babes prozesalak ere desberdinak dira harreman ganbiario eta extraganbiarioentzako (Ik. LCCh 66. art. eta LEC).

Aitzinean esan dugu deklarazio ganbiario bakoitzaren azpian oinarrizkoa edo kausazkoa den beste negozio bat izaten dela eta hura egikaritzeko egiten dela ganbio-letra. Baina zer nolako lotura edo harremana dago bi hauen artean?

1.1. Obligazio ganbiarioak

Harreman ganbiarioari dagokionez, gogoratu behar dugu ikuspegi biokoitza duela, bi mailatan sortzen dituela ondorioak, *inter partes* eta *inter tertios*.

Inter partes entrega-kontratua da obligazio ganbiarioaren iturri. Hemen harreman ganbiarioa eratzen da zordunak letra sinatu (prestakuntzako egintza formala) eta hartzekodunari entregatzen dionean (kontratu-eskaintza) eta hartzekodunak titulua jasotzen duenean, hau da, zordunaren eskaintza (promesa) haintzat hartzen duenean. Orduan perfektutzen da entrega-kontratua. Honela transmititzen da letra eta berekin duen eskubidea, tituluaren tradizioaren (*traditio*) bidez. Tituluaren tradizioa edo entrega beharrezkoa da ganbiarioki obligatzeko efektua sor dezan. Sinatzailearen obligazioa ez da sortzen tituluaren entregarik egin gabe.

Hartzailea hartzekodun ganbiario bihur dadin, beharrezkoak dira zordunaren obligatzeko eskaintza eta hartzekodunaren adostasuna. Entrega sinatzailearen borondatea kanporantzeko modua da eta entrega-kontratuaren baliozkotasuna Kode Zibilaren araupean dago (KZ 1261.art. e.o.). Beraz, adostasunaren akatsagatik aurkatzea posible da. Hain zuzen, *baliotasunezko salbuespenak* (*excepciones de validez*) dira entrega-kontratuaren eraketa ez-osoia edota akastuna salatzen dutenak. Salbuespen pertsonal hauek *inter partes* jar daitezke soilik, hau da, entrega-kontratuan parte izan denaren aurka.

Entrega-kontratuaren edukiari dagokionez, honek diru-kopuru bat ordaintzeko obligazioa eratzen du: *obligazio zuzena* onartzailearentzat eta *bermezko obligazioa* igortzaile eta endosugileentzat. Bestalde, letraren jabetza eta berekin duen eskubidea ere transmititzen ditu.

Inter tertios, berriz, itxura juridikoa da obligazio ganbiarioaren iturri. Hirugarrenaren aurrean ganbiarioki obligatua gertzeko gutxienezko baldintza sinatutako dokumentuaren existentzia da. Edonor fede oneko hirugarrenaren aurrean ganbiarioki erantzule izango da, dokumentua sinatu hutsagatik. Honen helburua kredituen zirkulazioari ziurtasuna eta azkartasuna ematea da. Horretarako, zuzenbide ganbiarioarentzat nahiko da itxurazko egoera faktiko bat *inter tertios* obligazio ganbiarioa sor dadin.

Itxura juridikoaren konstrukzio doktrinala zuzenbide zibilean ere erabili ohi da. Baina hemen zuzenbide ganbiarioaren berezitasunetara egokitu behar da. Kasu honetan titulua sinatzen duenak (obligatu ganbiarioak) agerikoa den errealitate bat sortzen du, fede oneko hirugarrenak ikusi eta sinets dezakena. Ondorioz, tituluan adierazitako kreditu-eskubideak akatsik gabe jaio izan direnaren itxura agertzen badu, sinatzaileak erantzun egin beharko du, egozgarri zaion heinean. Itxurazko supostuak lau elementu elkartzea galdatzen du. Lehenik, itxurazko egoera objektibo bat behar du, kasu honetan ganbio-letra, kreditu-eskubidea adierazten duena. Bigarrenik, negozioak izaera ekonomikoa izan behar du, ez dohainekoa, eta hauxe da negozio ganbiariorat gertatzen dena. Hirugarrenik, kreditua eskuratzen duen pertsonak fede oneko hirugarren bat izan behar du, egoera objektiboaren eraketarekiko arrotza, ez du zorduna eta berari transmititzen dionaren arteko entrega-kontratuan akatsik egon denik ezagutu behar. Azkenik, laugarren elementua itxurazko egoera objektiboa zordunari egozgarri izatea da. Teknikoki sinadura da egozgarritasuna adierazten duen egintza juridikoa. Obligazio ganbiarioa egozgarri izateko, nahikoa da zordunak bere borondatez sinatu izana, nahiz eta ondorio juridiko guztiak bere gain hartzeko borondate osorik eduki ez, ondorio guzti horiek legez ezarritakoak bait dira.

Elementu hauek agertzen direnean sinatzailea *inter tertios* obligatu ganbiario bihurtzen da eta horrek zenbait ondorioak ekartzen ditu. Esate baterako, obligazio ganbiarioaren sortzean dauden akatsak konpondu egiten ditu, hirugarrenekiko. Obligazio ganbiarioa ez baldin bada behar bezala eratu, baina hirugarrenaren aurrean baliozkoa dela badirudi, hala izango da. Adibidez, norbaitek ganbio-letra bat sinatu du zuriz, gero damutu egin da, baina bitartean beste batek zirkulazioan jarri du.

Bestalde, iraungitako eskubidea berpiztu egin dezake. Igorpendu/onartzaileak ordaintzen duenean, ganbio-letra berreskuratzeke eskubidea dauka. Ez badu

eskuratzen, bere jokabideak ezin dezake hirugarrenik kaltetu (LCCh 45.I art.) Orduan, iraungitako eskubidea berpiztu egingo da. Iraungipenaren ondoren tituluak zirkulazioan jarraitzen badu, ezin da horrekin uste oneko hirugarrenik kaltetu.

Azkenik esan, itxura juridikoak ez dituela letraren azpiko obligazio extraganbiarioen akatsak konpontzen. Igorpendu/onartzaileak ezin du hartzailearen aurrean defendatu, igortzailearekin dituen harreman pertsonaletatik eratorritako salbuespenak jarriaz. Hirugarrenari ezin dizkio salbuespen *kausal* horiek aurka jarri, azpiko harremanaren gorabeherak arrotzak zaizkiolako.

1.2 Kausazko harremanaren eragina obligazio ganbiarioagan

Eremu ganbiario eta extraganbiariaren arteko bereizketa beharrezkoa izan arren, zenbait unetan oinarrizko harreman kausalak harreman ganbiarioan islada edo eragina izango duela ikusiko dugu. Hau gertatuko da harreman kausaleko eta ganbiarioko alderdiak berberak direnean.

Negozio ganbiarioa '*abstraktua*' dela esan ohi da. Afirmazio horrekin badirudi esan nahi dela negozio ganbiarioa azpiko harremanarekiko erabat autonomia edo independientea dela. Prozesalki hala da, '*abstraktua*' da. Hartzekodun ganbiarioak ordainketa galda diezaioke zordunari, zorraren kausa ba ote den edota baliozkoa ote den frogatu beharrik izan gabe (KZ 1277.art. kausa badela eta zilegia dela uste da). Obligazio kausalarekiko ere '*abstraktua*' edo autonomia da, obligazio ganbiarioa eta azpiko negozioa desberdinak dira. Baina horrek ez du esan nahi bien artean inongo harremanik ez dagoenik (LCCh 20 eta 67.art.).

Ondorioz, esan dezakegu negozio ganbiarioak *kausala* baduela, hau da, kontratu-egitea justifikatzen duen arrazoia. Norbaitek beste bati ganbio-letra entregatzen dionean, zerbaitengatik izango da. Zerbait hori da oinarrizko azpiko harremana (adibidez, ordainketa, berme-ematea, kreditu-ematea, mesede-egitea). Horrek justifikatzen du negozio ganbiarioa burutu izana. Dena den, hemen ere, lehen bezala, *inter partes* eta *inter tertios* harremanak bereiztu behar dira.

Inter partes ganbio-letraren eraentza zuzenbide zibilarekin bat dator. Harreman kausaleko gorabeherak harreman ganbiarioan isladatzen dira. Zordun ganbiarioak hartzekodun ganbiarioari beren arteko harreman kausaletik eratorritako salbuespen guztiak jarri ahal izango dizkio. Negozio kausala negozio ganbiarioan gauzatzen den entrega-kontratuaren funtsezko elementua da eta, ondorioz, kausarik ezak edo kausa akastunak eskubide ganbiarioaren existentzia galera egiten du. Adibidez, erositakoa egoera txarrean baldin badago eta, ondorioz, erosleak ez badu erositakoa ordaintzeko obligaziorik edota gutxiago ordaintzeko eskubidea baldin badu, *inter partes*, eremu ganbiarioan ere, ondorio juridikoa berbera izango da.

Inter tertios, aldiz, eraentza ganbiarioa ez dator bat zuzenbide zibileko oinarriekin. Negozio ganbiarioa bere kausatik (oinarrizko negoziotik) aldendu egiten da, letra zirkulazioan ipini eta fede oneko hirugarrenaren eskutara iristen denan. Negozio ganbiarioan (entrega-kontratuan) parte hartu dutenen arteko harremana arrotza zaio hirugarrenari eta, ondorioz, haren kausa baita ere. Horregatik ezin zaio negozio kausal haren akatsetatik sortutako salbuespenik aurka jarri. Trafikoaren segurtasunean, batez ere, oinarritzen da ondorio hau (LCCh 12, 19.II, 20, 21.II, 22.II eta 67.I. art.). Adibidez, onartzailearen obligazioa deuseza da igortzailearekiko, harekin egindako salerosketa deuseza delako. Hartzaileak onartzailearekin ez du inolako harremanik izan. Letra kobratzeko eskubidea igortzailearekin izandako harremanetatik datorkio. Beraz, ez du arrotzak zaizkion harremanetako gorabeherak zertan jasan beharrik.

2. HORNIDURA ETA BALUTA

Hornidurazko harremana igortzaile eta igorpenduaren artekoa da, ganbio-letra igortzea bultzatzen duen harreman kausala. Garai batetan, ganbio-letraren jatorrizko ideiatan oinarrituaz, Merkataritzako Kodeak igortzaileak igorpenduari hornidura egiteko obligazioa ezartzen bazuen ere, orain Legeak ez du halakorik esaten. Lehen hornidura ganbio-letraren kausa eta funtsezko elementua zen baina orain ez da hala.

Ganbio-letra ordaintzen ez bada eta akzio ganbiarioak galtzen badira, argi dago norbait aberastu egin dela. Halako kasutan hornidurak ekitatezko funtzioa betetzen du (LCCh 65. art. aberaste ganbiarioaren akzioa). Ikusi beharko da nork nori zer nolako fondoan hornidura egin dion, ez bidez nor aberastu den jakin ahal izateko.

Bestalde, posible da ere horniduraren lagapena egitea (LCCh 69. art.), hau da, hornidurako harremanetik eratorritako eskubideak lagatzea eta honek bermezko funtzioa betetzen du. Honela, onartu gabeko edo onartu ezineko ganbio-letratan, edukitzaileari beste bide bat ematen zaio igorpenduari letrako ordainketa galdatu ahal izateko, hartzekodun kausal bihurtzen baita. Obligazio kausala betetzea eska diezaioke, hau da, ‘hornidurari dagokion eskubideak’ (*cede sus derechos referentes a la provisión*). Eskubide horiek izan daitezke prezioa, baina, baita ere, globalagoa den beste eskubide-multzo bat eskubide errealak barne (adibidez, jabetzaren erreserba-eskubidea). Baina lagapena ez da automatikoa, zenbait formaltasun bete behar dira: klausula expresua jarri eta igorpenduari jakinarazi (LCCh 69.II art.). Horren ondorioz, ganbio-letra mugaegunean ordaintzen ez bada, edukitzaileak hiru aukera izango ditu kreditua galdatzeko: i) atzerabideko akzio ganbiarioa (berari dagokiona) igortzailearen kontra; ii) akzio kausala igorpenduaren kontra eta hemen, horniduraren lagapenetik (harreman kausaletik) eratorria denez, igorpenduak igortzailearekiko zituen salbuespenak jarri ahal izango dizkio edukitzaileari; edo iii) subsidiarioki, aberaste ganbiarioaren akzioa.

Balutazko harremana, berriz, igortzaile eta hartzailearen artekoa da. Adibidez, bankuarekin egindako deskontu-kontratua izango litzateke, ‘*amaiera onik ezean*’ (*salvo buen fin*) egiten dena. Bankuak igortzailea finantziatzen du, igorpenduarengandik ordainketa espero duelako. Hartara, igortzaileak ez dauka mugaegun arteraino itxaron beharrik dirua izateko bankuak aurreratzen baitio. Gerta daiteke ere igortzaileak bere hartzekodun bati ganbio-letra entregatzea berekin zuen zor bat ordaintzeko. Balutaren kasuan kontrabalorea ematen da ganbio-letra entregatzearekin batera.

Guzti hau kontuan izanik, komeni da zehaztea zein den harreman kausaletik eratortzen diren eskubideen ibilbidea ganbio-letra zirkulazioan jartzen denean. Horixe da, hain zuzen, ondorengo atalean azalduko duguna.

3. LETRA ENTREGATZEAREN HELBURU KAUSALAK

Ganbio-letra entregatzeak era askotako helburuak izan zitzake. Baina helburu nagusiena ordainketaren bat egitea izaten da. Entrega hori dela eta, harreman ganbiarioa duten subjektuen artean bi kredituren existentzia bereizi dugu: batetik, kreditu ganbiarioa eta, bestetik, kreditu kausala. Baina, noski,

ordainketa egiteko obligazioa bakarra da, ordinketa bakar bat egin hehar da. Egoera konplexu hau antolatzen Kode Zibilean daude irizpideak 1170 artikuluko bigarren eta hirugarren letratan.

Arau hauen aburuz, zordun batek bere hartzekodunari ganbio-letra bat entregatzen dionean honek letra jasotzearekin batera dokumentua behar bezala zaintzea onesten du eta bere mugaeguna iritsi bitartean azpiko harremaneko eskubideak geldirik geratzen dira. Mugaeguna iritsitakoan, ganbio-letra behar bezala ordainduz gero eskubide horiek iraungi egingo dira. Baina ordainduko ez balitz, ganbio-letraren hartzekodunak aukeratu ahal izango du: azpiko harremaneko obligazioa galdatzeko akzioa (akzio kausala) ala ganbio-letraren ordainketa galdatzeko akzioa (akzio ganbiarioa). Bigarren hau aukeratu balu, bide hau amaitu arte, berriz ere azpiko harremaneko eskubideek geldirik jarraituko lukete.

Beraz, obligazio ganbiarioa hartzeak ez du obligazio kausalik ordezkutzen (KZ 1170.II art.). Obligazio kausala indartu egiten du, hartzekodunak bere interesa burutzeko bigarren tresna bat dauka horrela. Tituluaren entregak ez du obligazio kausalarengan eragin solutoriorik, aldiz bizirik dirau obligazio ganbiarioa bete artean. Ganbio-letra *pro solvendo* entregatzen da (*'amaiera onik ezean'*, *'salvo buen fin'*) ordainketarako modu edo bide bezala. Ez da entregatzen *pro soluto*, ordainketa egin ordez, obligazioaren kunplimendua balitz bezala.

KZ 1170.II artikulua izaera dispositiboa du. Alderdien borondate 'normala' (ohikoa) izango litzatekena adierazten du. Baina alderdiek efektu hau alda dezakete eta ondorioz, ganbio-letra entregatzerakoan ordainketa egiten dela itundu. Honek obligazio kausalean efektu iraungitzaile zuzena izango luke. Efektu iraungitzailea lor daiteke, batetik, nobaziozko akordioaren bidez (KZ 1204 art., izaera inperatiboa duena). Orduan obligazio ganbiarioak obligazio kausala ordezkutzen du. Bestetik, posible da ere, pagurako emate-akordioaren bidez egitea (*dación en pago*). Kasu honetan hartzekodun kausalak hasieran erabakitako prestazioaren ordez beste bat onartzen du (KZ 1166 art. *a contrario*).

Ordainketak egiteko helburuaz gain, izaten dira beste helburu batzuek ere: obligazio kausala betetzeko berme bat edukitzea, judizio ganbiarioaz baliatzeko

aukera izanik (LEC 515 art.e.o.); dohaintzazko promesa (*donandi causa*) edota igorpendua mesedetzeko helburua.

4. MESEDEKO LETRA

Mesedeko ganbio-letren kasuan, igortzaile eta igorpenduaren artean ez da izaten hornidurazko harremanik. Honen ordeztu beste helburu bateko harremana egoten da, batez ere ganbio-letrako kreditua sendotzearen ideia, letraren zirkulazioa errazagoa izan dadin. Hemen kausa mesede bat egiteko ituna izaten da. Gerta daiteke, adibidez, banku batek ez izatea igortzailearengan konfidantza nahikorik deskontua egiteko. Orduan honek pertsona bat (mesedegile bat) bila dezake prest dagoena igorpendu izateko eta ganbio-letra onartzeko. Beraz, bien artean ez da hornidurazko harremanik izango.

Doktrinak mesedeko letren balioa eta zilegitasuna onartzen du. Juridikoki ez dago inolako oztoporik. Hornidura egitea ez da nahitaezkoa ganbio-letra baliozkoa izan dadin, legeak ez du halakorik galdatzen. Gainera, ganbio-letra igortzeak badu kausa bat, mesedeko ituna, alegia. Kausa honen ondorioztatu sortuko da obligazio ganbiarioa.

Egia da eremu ekonomikoan letra hauek arrisku handiagoa izan dezaketela, funtsean inork ez duelako jasotzen kontrabaliu ekonomikorik. Horregatik bankuek interes handia agertzen dute deskontatzen dituzten ganbio-letrak mesedezkoak ote diren jakiteko. Datu horren arabera kalkulatu dute hartzen duten arriskua eta ezarriko duten deskontu-tasa. Hori dela eta, jurisprudentiaren irizpedea da bankuari informazio hau ematea betebeharrak bat dela eta ez betetzeak kalte-ordaina ekar dezakela.

Ganbio-letra hauetan negozio ganbiarioaren kausa, azpiko harremana, mesedeko paktua da mesedegile eta mesedutuaren artean. Kontratu honen bidez, mesedegileak ganbio-letra sinatzeko obligazioa hartzen du (onartzaile, igortzaile edo endosugile moduan). Mesedetuak hartzen duen konpromezua, berriz, bi eratakoa izan daiteke. Izan daiteke edukitzaileari ganbio-letra ordaindu eta berreskuratzeko konpromezua, honek mesedegileari ordainketarik eska ez diezaion. Izan daiteke ere mesedegilea fondo nahikoaz hornitzea mugaeguna baino lehen, letra berak ordain dezan, inongo kalterik jasan gabe.

Hau, negozio atipikoa izan arren onartua dago, beti ere legea, morala eta ohitura onen aurkakoa ez bada (KZ 1255, 1275 art.). Kausa zilegia denean (adibidez, kreditua indartzea) onartu egiten da. Baina kausa zilegia ez bada, adibidez hirugarrenei iruzur egitea, mesedeko paktua deuseza izango da eta, ondorioz, negozio ganbiarioa baita ere. Baina deuseztasun honek ondorioak izango ditu soilik *inter partes* eta ez *inter tertios*. Hala ere, ez du eragin handiegirik, kasu honetan alderdi batek besteari ezin diolako paktua betetzea eskatu kausa zilegia ez izateagatik (KZ 1305, 1306 art.).

Mesedeko itunaren egitura eta izaeraren inguruan asko eztabaidatu da. Ezin da esan kreditu-kontratua denik, mesedegileari ez zaiolako dirurik eskatzen. Honek ez ditu bere fondo propioak erabili behar. Hain zuzen, honek hirugarren baten aurrean erantzutea ekidin behar du mesedetuak, berak zuzenean hirugarrenari ordainduaz edota, bestela, garaiz mesedegilea fondo hornituz.

Ezin da ere esan mesedea egitearen ituna fidantza-kontratua denik. Fidantza-kontratuan berme-emaileak inkunplimendu kasuan ordainketa egitearen arriskua bere gain hartzen du (KZ 1838 art.). Berak ordainduz gero, ordaindutakoa berreskuratzea eska dezake baina printzipioz ezingo luke kalte-ordainik eskatu (KZ 1838 art. '4. *Los daños y perjuicios, cuando procedan*').

Berriz mesedeko itunaren egitura bat dator mandatu-kontratuarekin. Mesedetua mandatugilea da eta honek mesedegilea liberatu behar du bere izenean hartu dituen obligaziotatik, hau da, bere kontura ordainketa egitetik. Hona hemen mesedeko ituna mandatuarekin bat datorrela erakusten duten arrazoiak. Batetik, mesedetuak bere obligazioa ez betetzeagatik, mesedegileak eskatu ahal izango dio (KZ 1728.II art.) ordaindutakoa eta kaltegalera. Arrazoa zera da, ganbio-letra ordaintzea ez zela enkarguaren objektua, soilik letra sinatzea baizik. Obligazio honen inkunplimenduagatik mesedegileak letra ordaindu behar izan badu, kalte bat sortu zaio, konpentsatu beharrekoa (KZ 1729 art.). Bestetik, mandatu-hartzailea mesedegilea da eta bere egitekoa (enkargua, mandatu) sinadura ipintzea da solik. Hori egin ondoren, ez du bere jabetzan inongo kalterik jasan behar. Mandatuaren objektua hirugarrenen aurrean lotura ganbiarioa hartzea da, baina ez letra ordaintzea. Beraz ez da erantzule izango hirugarrenei ez ordaintzeagatik. Azkenik, esan behar da mesedea usu dohain izten dela, baina ez beti. (KZ 1711.art.) Posible da mesedetuak mesedegileari ordaindu behar izatea berak hartutako harriskuagatik (adibidez, onarpen bankarioa).

Mesedea egitearen inguruko (*exceptio*) salbuespenak kausalak dira, azpiko harremanean oinarrituta bait daude. Aurka jarri ahal izango dira *inter partes* eta ez *inter tertios*. Honen salbuespena *exceptio doli* da, mesede-paktua egiterakoan beldurra edo okerren bat egon baldin bada eta hirugarren edukitzailea jakinaren gainean eta zordunaren kaltetan aritu izan bada (LCCh 20, 67 .art.)

5. SALBUESPENAK

‘Salbuespena’ esaterakoan kreditu-eskubidearen existentzia edota egikaritza zalantzan ipintzen duen inguruabarrez ari gara (*exceptio*). Zordun ganbiario izateagatik pertsona bati ganbio-letraren ordainketa egitea galdatzen zaionean, honek zenbait babes-bide erabiltzeko modua izan dezake. Froga dezake, agian, hartzekodun bezala agertzen denak ez duela kreditu ganbiarioa kobratzeko eskubiderik edo, bestela, baliteke frogatzea berak ez duela zor ganbiarioa (guztiz edo zati bat) ordaintzeko obligaziorik. Dena den, (*exceptio*) salbuespenen erabilerak bere mugak ditu. Ordainketa erreklamatu izan zaionak babes-bide hau ezin du modu berean erabili edozein pertsonaren aurrean. Kasu bakoitzean ikusi behar da nork nori zer erreklamatzeko dion eta honek hari zein (*exceptio*) salbuespen jar diezaioken ordainketa ekiditeko edo modulatzeko. Salbuespenen sistema LCCh 67 artikuluan arautzen da, baina artikulua honen erredakzioa ez da batere egokia.

Alde batetik, jar daitezken salbuespenen sistema itxia ezartzen du, esanez akzio ganbiarioaren aurrean onargarriak izango direla soilik artikulua honetan aipaturiko salbuespenak (*numerus clausus*, LCCh 67. art. III.lerr.). Ideia hau arriskutsua da, zordunari dagokion salbuespenen multzoa gehiegi murrizten duelako. LCCh 67 artikuluko I eta II lerroek ahaztu egiten dituzte garrantzi handiko beste zenbait salbuespen erabilgarriak direnak, esate baterako: exzepzio prozesalak (eskumen-eza, epaitutako gaia izatea, e.a., LEC), gutxiegi ziko tinbrea, letraren abusuzko osaketa (LCCh 12. art.), faltsifikazioa (LCCh 93. art.), edo amortizazioa (LCCh 84-87. art.). Beraz, LCCh 67 artikuluko katalogoaren izaera itxia mantentzeak legearen sisteman antinomia normatibo bat sortuko luke. Horregatik, lege ezarritako sistemaren osotasunari eutsi nahi badiogu, artikulua honen izaera itxia ukatu beharra daukagu, beste xedapen batzutan araututakoa ere haintzat hartuz.

Bestalde, LCCh 67 artikulua egiten duen salbuespenen bereizketa ere ez da oso egokia. Badirudi doktrina tradizionalaren bereizketa (salbuespen *pertsonalak* eta *errealak*) mantentzen duela. Baina ideia hau ere arriskutsua da, hirugarren edukitzaileari aurkagarri zaizkion salbuespenen multzoa gehiegi zabaltzen duelako. Kontuan izan behar dugu LCCh 67. artikuluko bigarren lerroaldeko salbuespen guztiek ez dutela izaera *errealik* eta ezin direla *erga omnes* aurka jarri. Adibidez, borondatearen akatsetan oinarrituriko salbuespenak (doloa, errorea, larderia), nahiz eta deklarazio ganbiarioaren baliozkotasunean eragina izan, soilik *inter partes* jar daitezke eta ez *inter tertios*. Gauza bera gertatzen da ordainketa egin izanaren salbuespenarekin. Salbuespen hau (kreditu ganbiarioa iraungitzen duena) '*errealak*' izango da soilik dokumentuan agertzen denean. Ondorioz LCCh 67. artikuluan salbuespenen beste sailkapen bat jasotzen dela ulertu behar da, salbuespen *extraganbiarioak* eta salbuespen *ganbiarioak*.

Legeak salbuespen *pertsonalak* esaten duenean salbuespen *extraganbiarioak* direla ulertu behar dugu, hau da, azpiko harreman kausalen ingurukoak, ganbiarioak ez diren harremanetan sortutako gorabeherak. Salbuespen hauek erabili ahal izango dira soilik harreman horietan parte hartu duten hartzekodunaren kontra eta ez hirugarren baten kontra, ez badu behintzat hirugarren horrek letra doloz jaso izan (LCCh 20 art.) edota kredituen lagapen arruntaren efektuak dituen transmisio baten bidez (ad. ahalordezko endosu mugatu baten bidez, LCCh 21 art.). Halako kasutan bai, salbuespen *pertsonalak* edo *extraganbiarioak* hirugarren horren aurka erabili ahal izango ziren.

Legeak aipatzen dituen gainontzeko salbuespenak *ganbiarioak* dira eta hiru multzotan agertzen zaizkigu (LCCh 67.II art.):

- '*Auzipetuaren deklarazioaren inexistentzia, baliogabetasuna edo faltsutasuna*'.

Gerta daiteke, adibidez, auzipetuaren sinadura faltsutu izana, gaitasunik ez izatea, deklarazioa egiterakoan kontsentimenduko akatsen bat izatea edota ahalorde nahikorik ez izatea. Salbuespen hauek ez dituzte ondorio berdinak. Deklarazio ganbiarioaren kontsentimenduko akatsak deklarazioa *inter partes* baliogabetzea ekartzen du, salbuespen hori soilik negozio ganbiarioan parte hartu duenaren aurka erabili ahal izango da. Egozgarritasunezko salbuespenak berriz (ad. zordun egertzen

denaren ordezkartzarik eza edota bere sinadura imitatzea), *erga omnes* aurka jarri ahal izango dira.

- *‘Edukiztailearen legitimotasun-eza edota ganbio-letraren legezko formaltasun-eza’.*

Bi supostu hauek elkarrekin aipatu arren oso desberdinak dira. Ganbio-letraren legezko ukanbeharren bat falta bada (LCCh 2 art.), dokumentua ez da ganbio-letra izango eta ezin izango da akzio ganbiariorik jarri. Aldiz, edukiztailearen legitimazioaren inguruko salbuespenak (ad. oker egindako endosua) edukiztaile horrenak dira eta ez dute beste pertsona batek erreklamazioa egitea galeratzen.

- *‘Auzipetuari betetzea eskatzen zaion kreditu ganbiarioaren iraungipena’.* Hemen ere ondorio desberdinak izan ditzaketen supostuak ager daitezke. Igorpenduak egindako ordainketa ganbio-letran agertzeak kreditu ganbiarioa iraungitzea ekartzen du. Preskripzioaren ondorioz ere gerta daiteke iraungipena. Aldiz, ganbio-letra igortzaile edo endosugile baten eskutan geratzeak beren ondorengo atzerabideko obligatuen liberazioa suposatzen du baina ez onartzailearen edo aurreko atzerabideko obligatuen liberaziorik.

Ikus daiteken bezala, LCC 67 artikuluan egiten den arauketa ez da oso sistematikoa, izaera eta ondorio oso desberdinak dituzten salbuespenak elkartzen dituelako. Hori dela eta, doktrinaren sektore batek salbuespenen sistematizazio bat proposatzen du, hiru talde bereiziaz:

- Salbuespen ganbiarioak, itxura juridikotik eratorritako obligazio ganbiarioaren baliotasunean eragina dutenak. Aurkagarriak dira bai eta *inter tertios* ere. Hirugarrenak ezin du bere aurka jar daitezen galerazi. Ezin ditu ekidin, pairatu egin beharko ditu.
- Salbuespen ganbiarioak, letraren entrega-kontratutik eratorritako obligazio ganbiarioaren baliotasunean eragina dutenak. Ezin zaizkio hirugarrenari aurka jarri (fede txarra edota erru astuna izan ezik). Hirugarrenak ekidin edo galerazi ahal izango ditu (‘baliotasunezko salbuespenak’ ere esaten zaie).
- Salbuespen extraganbiarioak, azpiko harremanetik eratorritakoak direnez, jarri ahal izango zaizkio soilik harreman horretan parte hartu duen hartzekodunari, eta ez hirugarren bati (doloa izan ezik).

Lehenengo taldekoak, itxura juridikoaren inguruko salbuespenak, hartzekodunak ekidin edo galerazi ezin diren salbuespenak dira, nahitaez jasan beharko dituenak. Itxura juridikoak eduki ditzaken akatsen ingurukoak dira. Izan daitezke:

- Trafikoari buruzko salbuespenak, legeak babestu nahi duen zirkulazioarekin bat egiten ez duten transmisioarenak, adibidez: kobrurako endosuak (LCCh 21 art.).
- Dokumentuzko salbuespenak, adibidez: ganbio-letrak izan behar dituen formaltasunen eza (LCCh 1 art., 67.II art.), ganbio-letra kaltetzea (LCCh 63 art.); preskripzioa (LCCh 88. art.); 'nire erantzukizunik gabe' eginiko endosua (LCCh 18.I art.); ganbio-letran ezarritako ordainketa partziala (LCCh 45.II art.).
- Egozgarritasunezko salbuespenak, adibidez: sinaduraren faltsutasuna (LCCh 93 art., 67.II.1 art.); ordezkaritzarik eza edo *falsus procurator* (LCCh 10 art.); gaitasunik eza (LCCh 8 art.); faltsifikazioa (LCCh 93 art.).

Bigarren eta hirugarren taldekoak, berriz, ekidin daitezken salbuespenak dira, hirugarren hartzekodun batek galerazi ditzakenak. Gainontzeko guztiak dira, soilik *inter partes* dute eragina. Hauek dira:

- Baliotasunezko salbuespenak. Ezin zaizkio hirugarrenari aurka jarri, fede txarrez edota erru astunez jarduten duenean ezik (irregulartasuna ezagutzen zuelako edota ezagutzeko modua zuelako). Adibidez: zurizko ganbio-letra itundutakoaren arabera ez osatzea (LCCh 12.art.) edota borondatez kontrako entrega egin izana (lapurketa, galtzea) (LCCh 19.II.art.).
- Salbuespen extraganbiarioak, kontratu kausaleko akatsetik eratorritakoak. Ezin zaizkio hirugarrenari aurka jarri, doloz jokatzen duenean ezik (LCCh 20 eta 61.I.art.), adibidez, azpiko kontratu kausalaren ez-betetze osoa edo partziala. Doloaren ezaugarriak dira hirugarrenak salbuespena ezagutzea eta trafikoan zintzoa ez den portaera izatea.

Hona hemen taula bidezko adierazpena:

SALBUESPENAK

| | | | | |
|---|----------------------|--|---|------------------------|
| Obligazio ganbiarioko salbuespenak | <i>Inter Tertios</i> | itxura juridikoa | trafikoa | EKIDIN EZIN DIRENAK |
| | | | kokumentua | |
| | | | egozgarritasuna | |
| Obligazio extraganbiarioko salbuespenak | <i>Inter Partes</i> | entrega kontratua | baliozkotasuna <i>* Inter tertios: fede txarra eta erru astuna (LCCh 12 art., 19 art.)</i> | EKIDIN DAITEZKENAK |
| | | | obligazio ganbarioa eta obligazio kausala bat datoz | |
| Obligazio extraganbiarioko salbuespenak | <i>Inter Tertios</i> | obligazio ganbarioa obligazio kausalarekiko independentea da | Ezin dira jarri <i>* dolo kasutan ezik (exceptio doli, LCCh 20 eta 67.I art.)</i> | |